

Lazarragaren eskuizkribuko <nagon> adizkia: grafia-kontu bat baino gehiago

Borja Ariztimuño Lopez
UPV/EHUko doktoregaia

Badira hamabost urte pasatxo aurkitu zutenetik, eta ordutik hona Lazarragaren eskuizkribuak harribitxi bezainbeste buruhauste eman dizkigu. Hala, transkripzio eta edizio kritiko fidagarriaz gain, izan da bestelako ekarpenik ere hura hobeto ulertzeko bidean. Halakoa nahi lukeen lan honetan, testua ez ezik eskuizkribuaren argazkiak ere aztertu ditut, orain arte heldu ez zaion grafiari lotutako arazo bat argitu nahiz, eta Lazarragaren hizkeran (eta haren ingurukoetan) argi egiteko asmoz. Nire proposamena da Lazarragak han-hemenka hizkien gainean idatzitako ikurrek egiazko balio fonologikoa dutela, kasu batzuetan bederen; esaterako, <nagon> adizkian. Labur esanda, <ñagon> irakurri behar dela frogatzen saiatuko naiz, eta horren inplikazio morfologiko eta etimologiko batzuk argitzen.

GAKO-HITZAK: Lazarragaren eskuizkribua · Filologia · Aditz-morfologia.

The finite verb form <nagon> of Lazarraga's manuscript: beyond spelling issues

Since its discovery more than fifteen years ago, Lazarraga's manuscript has provided us with as many treasures as headaches. Thus, in addition to a reliable transcription and critical edition, there have also been other attempts to better understand it. In this work I would also like to contribute to it, by analysing not only the text but also the photographs of the manuscript, in order to clarify a matter related to the spelling that has not been given due attention until now, and thus shed some light on Lazarraga's dialect (and the surrounding varieties). I propose that the signs that Lazarraga sometimes writes above the letters have in some cases a real phonological value; as for example in the finite verbal form <nagon>. Briefly stated, I will try to prove that it should be read as <ñagon>, and I will explain some of its morphological and etymological implications.

KEY WORDS: Lazarraga's manuscript · Philology · Verb morphology.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.118.2021.4>

Jasotze-data: 2020-08-04 *Onartze-data:* 2020-09-04

1. Sarrera^{1/2}

Artikulu honetan aditz laguntzaile berezi bati buruz arituko naiz, bi helburu nagusirekin: batetik, Lazarragaren eskuizkribuan soilik dokumentatu den aditz-forma baten (<nagon>) eta Lazarragaren eskuizkribuko diakritiko-sistemaren azterketa xume bat eginez, adizkiaren irakurketa berria (<ñagon>) proposatzea (§2) eta, bestetik, haren paradigma berekoak diren testu zaharretako forma guztiak biltzea, XX. mendeko inkesta dialektologikoetan jasotakoekin batera (§3 eta eranskinak). Azkenik, aditz laguntzaile horrentzat beste ikertzaile batzuek proposaturiko etimologiak aztertuko ditut, eta, amaitzeko, neure ikuspegia eta ondorioak aurkeztuko ditut (§4).

2. Adizki berezi bat, ezaugarri berezi bi

Lehenik eta behin, Lazarragaren eskuizkribuan orain arte oharkabean bezala igaro den adizkia deskribatuko dut, ezen aurreko lanetan «oker» irakurri da eta, oro har, haren paradigma hobeto azaldu beharra dago³.

Delako adizkia Bilbao eta bestek (2020) <nagon> transkribaturikoa da, eta 'nion' adiera du (1-5 adibideak)⁴. Teknikoki ezin da hapaxtzat hartu, eskuizkribuan ageri den haren orainaldiko kide *jagot* 'diot' bezalaxe (bai, aldiz, *jago* 'dio')⁵, eta, gainera, bokalarteko -g- hori dela-eta gipuzkera zaharreko testuetan ezagunak diren *digo* 'dio' erako laguntzaileen kutsua dutenez, haiekin parekatu dituzte Lazarragaren eskuizkribuaren edizilogileek, xehetasunetan sakondu gabe bada ere. Hauek dira <nagon>-en adibide guztiak, edizioan eman dituzten bezala:

- (1b) *itaundu nagon poridadean / beste donzella bateri* (Laz, A7:71)
- (2b) *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua* (Laz, A21:5)
- (3b) *çaguita çorroz bat ifini nagon / berar gaxtoaz ganchitua* (Laz, A21:17)
- (4b) *bere cençuna ifini nagon / promesa ascoz pobladu[a]* (Laz, A21:25)
- (5b) *Erançun nagon: "Ni noçun guero (...)* (Laz, B21:97)

1. Lan honek Eusko Jaurlaritzaren «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HMLV-LHC) [IT1344-19] ikerketa-talde kontsolidatuaren eta MINCEOk finantzaturako «Monumenta Linguae Vasconum (V): cronología y periodización» (kodea: FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren babesa izan du.

2. Eskerrak eman nahi dizkiet Ricardo Gómezi, Oxel Uribe-Etxebarriari eta Eneko Zuloagari zenbait datu eta testu eskuratzen laguntzeagatik, bai eta Ricardo Gómezi eta Joseba Lakarrari lanaren aurreko bertsio bati egindako iruzkinengatik ere; diratekeen akatsak oro, jakina, nireak baino ez dira.

3. Testu aberats bezain konplexu hori hobeto ezagutzeko bidean lehenago ere izan da ekarpenen bat; adibidez, Ariztimuño (2015), *dabe(n/la)* 'due(n/la)' / *daue* 'dute' eta *eben* 'zuen' / *euén* 'zuten' bereizi beharraz, besteak beste.

4. Artikuluan zehar jarritako adibideetan 1. eranskineko zenbaketa gorde dut (han aurkituko ditu irakurleak bildutako lekukotasun guztiak).

Bestalde, testuan zehar nahiz eranskinetan laburdura hauek erabili ditut: AmilD = Amilletaren dotrina, 1677 (Arejita & Alberdi, 1983); AnzD = Antzuolako dotrina, 1825 (Uribe-Etxebarria 2008); Laz = Lazarraga, ca. 1600 (Bilbao eta beste, 2020).

5. Eskuizkribuan bosna aldiz agertzen dira *jagot* eta <nagon>, eta behin *jago* (guztiak Lazarragaren eskuoak).

Alabaina, datozen lerroetan erakutsi nahi dudanez, batetik, baditugu bi adizki-multzoen (*digol/jago*) parekatze hori zalantzan jartzeko arrazoiak (kronologikoak nahiz geografikoak), eta, bestetik, Lazarragaren <nagon> formak, iraganekoa izanik, agerian uzten du badela azaltzeke egon den beste ezaugarri bat ere: erro-aurreko -a-; hau da, adizki horretan iraganeko edo «ez-oraineko» markarik ez agertzea, -n atzizkiak besterik.

2.1. Iraganeko -a-?

Azken puntu horren harira, esan beharra dago Lazarragaren sisteman orainaldiaz kanpoko adizkiek beti -e- bokala dutela erro-aurrean; guztiek, arrazoi morfofonologiko jakin batzuen ondorioz -i- edo j- dutenek izan ezik: e. g. *nioean* 'nindoan', *jacan* 'zitzaion'. Azken horretan, adibidez, datibo-aurreko marka eta iraganekoa batu ziratekeen fonema bakarrean (dela *e-i-tik, dela *i-e-tik). Orobat gertatu zen *ballacoren* 'balitzaio' hipotetikoko albokariarekin⁶.

Hala, bada, *nagon* forma araua urratuko lukeen bakarra litzateke; aitzitik, Lazarragaren eskuizkribuko hizkien gaineko ikurrak aztertutik (§2.2), nahiko ziur ondoriozta daiteke ezen <n> horiek egiazki <ñ> irakurri behar direla⁷.

2.2. Lazarragaren grafiaren berezitasun baten inguruan

Lazarragaren eskuizkribuak milaka hitz ditu, eta lehen begi-kolpean iduri luke (bereziki *zein* erlatibozkoaren kasuan) sarritan sudurkariaren sabaikaritasuna ez dela grafikoki adierazten; eta areago, badira sudurkari-sabaikaritasunarekin edota sudurkaritasunarekin loturik ez dauden ikur diakritikoak ere. Haatik, alderantzizko ikuspegia hartua, bestelako ondorioak atera ditzakegu.

Eskuizkribuan 128 diakritiko edo diakritiko-antzeko ikur aurkitu ditut (tiletak <̄>, flokak <̃>, eta kalderoi itxurakoak <̂>; cf. Bilbao eta beste, 2020), zeinetarik 101ek kontsonante sudurkariarekin zerikusirik izan dezaketen, teorikoki: dela kontsonante sudurkaria bera (*çecē* 'zezen') edo halako baten sabaikaritasuna adierazten dutelako (*acompañadua*, *çeñac*, *baño*), dela bokal baten sudurkaritasunarekin lot litezkeelako (*morrõe*). Horietatik bokal sudurkarietara legozkiekeenak kenduta (zalantzakoenak direlakoan), 91 lirateke «ziurrak» (%71)⁸; eta kontuan hartuta eskuizkribuak milaka hitz dituela, ez dirudi halabeharrez gertatu denik. Areago, itxuraz balio fonologikorik (edo sudurkaritasun-baliorik bederen) ez duten ikurren erdiak baino gehiago *Artzain Liburuan* daudenez (horrek eskuizkribuaren erdia baino gutxiago hartzen duen arren), gainerako testuetako egokitasunak % 75eraino iristen dira, gutxienez⁹.

Bestalde, ez da zalantzarik *baino*, *gain*, *oin* eta *zein* hitzen kasuan (bereziki <bano>, <gan->, <on-> eta <çen-> itxurapean agertzen direlarik) ikusten diren ikurrek <n> horiek <ñ> irakurri behar direla adierazten dutela (cf. Bilbao eta besteren

6. Mendebaldeko *jako*-ren paradigmako j-z, ikus Ariztimuño (2015: 66-67).

7. Ikus 3. eranskineko irudiak.

8. Ikus 2. eranskineko taula ondare zaharreko hitzetako diakritikoen kopuru eta proportzioez.

9. Analisi sakonagoa behar dute eskuizkribuko esku ezberdinek, bakoitzaren ohitura grafikoak be-reizteko eta, halakorik balego, sistematikotasunak aurkitzeko, baina hori lan honen xedeetatik harago da.

edizioa, 2020). Bada, kontuan hartuta *na-* hasieradun 200 hitz baino gehiago direla eskuizkribuan, eta ikurrak soilik <nagon> adizkiaren 5 lekukotasunetatik 4tan eta *naguiçu* bakarrean (15etik) ageri direla, egiantzekoena aztergai dugun adizkiaren gaineko ikurra benetako diakritikoa dela pentsatzea bide da; hau da, <nagon> irakurri behar dela.

3. Paradigmaren hedaduraz

Horiek horrela, aurreko puntuko proposamena onartuz gero, orainaldiko adizkietan argi ikusten den palataltasuna (*jagot* ‘diot’, *jago* ‘dio’) iraganekoan ere izango genuke, irregulartasun morfofonologikoa bazterturik. Hala, ezaugarri bat agerianago geratu da: erroaren aurreko *-a-*.

Arestian aipatu salbuespenak (*jacan* ‘zitaion’, *ballaco* ‘balitzaio’) oraingoz alde batera utzirik, auzia argitzeko testu zaharrenetatik lekukotzen diren forma guztiak hartu behar dira kontuan. Izan ere, Lazarragaren eskuizkribukoak ez dira N-N-N laguntzaile berezi horren lekukotasun bakarrak: Antzuolako testu zaharrenean (AmilD), bai eta XIX. mendeko dotrinan ere (AnzD), badira halakoak (12-19 adibideak). Areago, oraindik Oñatin eta Bergara-Antzuolan horien ondorengoak erabiltzen dira (*xao* /ʃao/, *jao* /xao/ ‘dio’ etab.), paradigma defektiboetan, XIX-XX. mendeko dialektologia-lan eta -bilketetan jaso bezala (ik. 4. eranskina).

Hortaz, Arabako (ipar-ekialdeko) euskararen eragin-eremuko berrikuntza dukegu hau (Zuazo 2012; Uribe-Etxebarria 2018; Eraña, 2020), Lazarragaren jaioterri Larrea eta haren leinuaren jatorriko Oñati lotzen dituen, besteak beste.

4. *-ago-* erroden formen jatorriaz

Honenbestez, aztergai dugun aditz-erroaren inguruan esan diren apurrak aipatu eta iruzkinduko ditut atal honetan, eta neronek atera ditudan ondorioak aurkeztuz amaituko dut.

4.1. Beste ikertzaileen esanak

Adizkiok aipatzen lehena Zavala (1848) izan zen, eta harengandik ikasi bide zituen Bonapartek (*apud* Urquijo, 1910: 294-295). Printzeak, adizkietako hots-aldaketak eta aldaerak deskribatzean, Bergarako *jao* eta Oñatiko *xao* adizkietan /tʃ/ > /ʃ/, /x/ gertatu zela esaten du (*deutso*-tik abiatuta, nonbait), xehetasun gehiagorik gabe (Bonaparte, 1869: 239).

Aldiz, Schuchardt-ek eta, hari jarraituz, Lafonek adizkiok zuzenean **edun*-etik zetozela proposatu zuten, oinarritzko formari *-(k)i-* datibo-marka gehiturik:

Dans des parlars biscayens du Guipuzcoa, “il le lui a” se dit *jao*, ailleurs *xao*. Comme Schuchardt l’a bien vu (*Baskische Studien*, 59), la spirante dorsale sourde *j* et la chuintante sourde *x* proviennent ici de **d-y*. Toutefois il ne faut pas poser à l’origine, comme il le fait, **d-a-u-ki-o*, mais **d-a-(d)u-i-o*, d’où **d-i-a-(d)u-o*, **dyawo*, **dyao* et enfin *jao* et *xao*. Dans la forme roncalaise *dau* “il me l’a”, le *au* ne peut pas

être ancien, car dans ce cas il serait devenu *ai*; *dau* provient sans doute de **d-a-(d)u-o*, sans *i*, forme du type le plus simple possible, d'où **dawo*, **dao* et enfin *dau* (Lafon, 1961 [1999]: 427).

Bestalde, Lazarragaren edizio-taldeak (Bilbao eta beste, 2020) *digo* erakoekin alderatzen dituzte, tarteko *-g-* dela kausa, baina lotura zehaztu gabe eta proposamen etimologikorik egin gabe; Uribe-Etxebarriak (2008) *-g-* errokotzat sailkatzen ditu; eta Mounolek (2015), aldiz, ez ditu era honetakoak aztertu.

Azkenik, Erañak (2020: 68-71) *egin*-en forma ditransitibotzat hartzea proposatu du, Lazarragak berak darabilen *jagin* jokatugabearekin loturik. Proposamen honi bi oztopo (agian ez gaindiezinak, halere) jar dakizkioke: alde batetik, *jago* 'dio' / *degion* 'diezaion' balizko oposaketa dugu (laguntzaileetan soilik) eta, bestetik, **jagio* > *jago* ezohiko higadura. Lehenari helduz¹⁰, kontraesana dirudi aldi berean banaketa modal hori laguntzaile-paradigman soilik gertatzea (zahartasun-zantzua izan litekeena) eta, aldiz, datu diatopikoek iradokitzen dutenaren arabera, eremu murrizt bateko berrikuntza izatea (*degi-* inoiz komunaren alboan). Izan ere, aipaturiko oposaketan eredu zaharrena *ja-* izatera, hain zuzen hura indikatiboz kanpoko funtzioetan (ere) agertzea esperoko litzateke, nola ageri baita *jagin* laguntzaile jokatugabea¹¹.

4.2. Proposamen berria

Esan dezakegun gauza ziur bakarra da *ñagon* 'nion' bezalako forma batean, *-ag(V)*¹² dela enborra. Horri erroen forma kanonikoaren teoria aplikatuz (Lakarra, 2008), ezinbestean *-a-* morfoa bereizi behar dugu (< **da-*?), eta *-g(V)*- geratzen da errorako.

Puntu honetan bi hipotesi planteatu litezke: edo lehenago (jokaturik bederen) ezagutzen ez gunden erro baten aurrean gaude (**gVC*, baina ez *egon*, *igo(n)~igan*, *jagon...*), edo, *digo* erakoetan bezala, *-g-* epentesia besterik ez da eta, beraz, ez dakigu zer erro (ezagun zein ezezagun) den azpian. Oraingoan bigarren aukerari jarraituko diot; zehazki, erro ezaguna izan daitekeelako hipotesiari.

Hasteko, eta bestelako arrastorik ezean, pentsatu beharko dugu ezen delako aditz-erroak «erraz» galtzeko moduko kontsonanteak eta bokala behar zituela. Lehen kontsonanteari dagokionez, *b-*, *d-* eta *g-* dira bokalaratean arrastorik utzi gabe desagertu litezkeenak, eta bukaerakoa, aldiz, *-n*. Bokalari dagokionez, esan dugu jada *a*, *o* eta *u* direla egiantzekoenak, datiboko *-o* gehituz gero harekin bat egin zezaten.

10. Bigarrenaz ez dut askorik esaterik, euskararen fonetika historikoan paralelorik ez duela besterik. Halaber, ematen duen etimologiari (*jagin* < **eagin* < *eragin*) zalantzarria deritzot, kontuan hartuta *eragin* bera bizirik zela eta artean bokalarteko *r* bakunak, oro har, ez zirela galduak.

11. Aldiz, aditz nagusi gisa (bi lokuzio hauetan beti: *berba jaguin*, *reberencia jaguin*) partitibodun partizipioaren formarekin ageri da gehienetan (*jaguinic*), modua edo perfektutasuna adierazten.

Bestalde, ohargile anonimo batek ohartarazi bezala, ohiko *egin* laguntzailea partizipio burutuarekin ageri da beti, eta *jago* erakoak, aldiz, burutugabearekin eta prospektiboarekin ere bai. Dena dela, argudia liteke gramatikalizazio(-maila) ezberdinen ondorioz edota perifrasi-sistemaren bilakaera orokorraren barruan gerta zitekeela bereizketa hori.

12. Azkena *o*-rekin batu litekeen bokal bat bada, egiantzekoenak *a*, *o* eta, agian, *u* izanik (**agao* / **agoo* / **aguo* > *-ago*).

Litezkeen konbinaketa guztiak aztertuta (**ban*, **bon*, **bun*, **dan*, **don*, **dun*, **gan*, **gon*, **gun*, **nan*, **non*, **nun*), berehalakoan hiru aukera gailentzen dira: **bon* ‘eman’ (**e-bon* > *eman*, Lakarra, 2019), **dun* ‘ukan’ (cf. **eradun* eta **edutsi*), eta Lakarrak ahoz aipatu didan **non* (cf. *erau(n)tsi*; Lakarra et al., 2019 [EHHE], s.v.). Alde batetik, kontuan hartuta berrikuntza (zahar) lokala dirudiela arkaismo handia bainoago, eta **bon* errotiko *-m-dun* formak (jokatugabe nahiz jokatuak) orokorrak direla lehen testuetarik, ez dirudi aukera egiantzekoena denik. Bestetik, **non* erroaren eratorri ugarien semantika (*-i(n)o-* ‘esan’, *erau(n)tsi* ‘jardun, ari izan [euria, berriketan]; jo’, etab.)¹³ eta ohiko gramatikalizazioak ikusirik (Heine & Kuteva 2002), nago ezen **dun*-en bidez azal daitekeela errazen. Hala, gorago azaldutako Schuchardten eta Lafonen proposamenera hurbiltzen gara, xehetasunak xehetasun.

Bilakaera fonologikoari dagokionez, gakoak adizkion hasierako sabaikaritzean eta erro-aurreko *-a-n* dago. Labur esateko, *-a*-ren presentzia **da-* (aplikatibo) aurrizkiari egotz dakioke, eta sabaikaritzea datibo-komuntadura gehitzeko **i-* aurrizkiari; edo haien arrasto fonologikoaren morfologizazioari (berrikuntza analogikotzat jotzen badugu).

Aldeak alde, ezaugarri horiek berak dakuskigu beste forma batzuetan ere. Lazarragaren *jaquin* eta *jaguin* jokatugabeetan (← **ekin*, *egin*; Bilbao eta beste, 2020) eta mendebaldeko *jaustak* (← *deust*) adizkian, esaterako, (**e-*, *d(e)-* → *ja-* *dugu*; *jakin* aditz nagusiaren orainalditik kanpoko formatako *-a-* behiala orokorra morfologia beraren arrastotzat har liteke (cf. *RS 406 bagineaquique*, Etxep. V, 13 *balyaqui*; ikus Mitxelena, 1954: 132-133); eta, bereziki, cf. mendebaldeko hizkera batzuetako *joat* ‘diat’ eta *ñoan* ‘nian’ alokutibokoak.

Hortaz, balizko **jadun* partizipiorik proposatu beharrik ez bada ere (baina inoiz izan zenik baztertu gabe), eta *jago* ‘dio’ (i) eta *ñagon* ‘nion’ (ii)¹⁴ adizkiak paradigmaren ordezkari harturik, bilakaera hauek proposatzen ditut¹⁵:

- (i) *dau* → **djau-o* > **ja(w)o* > *jago*
- (ii) *neu-* → **nj(e)au-o-* > **ña(w)o-* > *ñagon*

5. Ondorioak

Honenbestez, artikulua honetan erakutsi dut, batetik, orain arte <*nagon*> transkribatu izan den forma egiazki <*ñagon*> irakurri behar dela; ez soilik arrazoi morfologikoengatik, baizik eta, Lazarragaren grafiaren berezitasunak azterturik, adizkion gaineko ikur diakritikoak kontuan hartu behar direlako.

Bestetik, *jago* erako formen paradigma bere testuinguru diakroniko eta diatopikoan kokatu dut, eta lekukotasun zahar guztiak bildu; azkenik, adizkion ezaugarri morfologiko eta fonologikoak kontuan harturik, etimologia-proposamena egin dut,

13. Ikus Ariztimuño (2021) Garibairen *diago* adizkiaren inguruan.

14. Iraganeko atzizkia (ii)-ko garapen-eskematik kanpo utzi dut, haren bilakabideak azalpen berezia duelako, eta ez duelako hemen aztergai dugun garapen morfofonologikoan parterik.

15. Berreraiketeko *dj* eta *nj* digrafoek jatorrizko kontsonanteen (*d*, *n*) eta emaitzako kontsonante sabaikarrituen (*j*, *ñ*) arteko urrats morfofonologikoa islatu nahi dute (nire ustez, **i-* aurrizkiarekin lotua), zehaztasun fonetikorik gabe.

**edun* aditzaren oinarrizko formatatik abiatuta eta mendebaldeko (eta bereziki Lazarragaren testuko) beste aditz batzuetan ikusten den argumentu-gehiketako mekanismo ezagunaren bidez (*d*- > *j(a)*-).

6. Bibliografia

- Aldai, Gontzal (2013): «Sasiola vs. Lazarraga: Acerca del euskera del texto de Estibaliz Sasiola», *Lapurdum*, 17, 7-29. [DOI: 10.4000/lapurdum.2400]
- Arejita, Adolfo eta Alberdi, Mirari (1983): «Amilletaren dotrina», *Litterae vasconicae*, 3, 9-68.
- Ariztimuño, Borja (2015): «Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuek (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz», in Ricardo Gómez eta Mari Jose Ezeizabarrena (arg.), *Eridenen du zertzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*, UPV/EHU, Bilbo, 117-140.
- , (2021): «Garibairen erretrauetako *diago*: euskara, zakurrak, eta ustekabeko beste etimologia batzuk», *FLV*, 131n argitaratzeko onartua.
- Bilbao, Gidor eta beste (2020): *Lazarraga eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*, UPV/EHU, Bilbo.
- Bonaparte, Luis Loucien (1869 [1991]): «Le verbe basque en tableaux», in Euskaltzaindia (arg.), *Opera omnia vasconice*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1, 221-242.
- Eraña, Ane (2020): *Arabako euskararen dialektalizaziorantz: aditz morfologia aztergai*, EHUko Master Amaierako Lan argitaragabea.
- Euskaltzaindia (2014): *Euskal Herri Hizkeren Atlas* [EHHA], Euskaltzaindia, Bilbo. <https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage>
- Irizar, Pedro (1991): *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Euskaltzaindia, Bilbo. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/irizar/1927.pdf>
- , (1992): *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*, Euskaltzaindia, Bilbo. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/irizar/1926.pdf>
- Lafon, René (1961 [1999]): «Sur les formes verbales basques qui contiennent un indice datif», in Jean Haritschelhar eta Piarres Charriton (arg.), *Vasconiana* [Iker, 11], Euskaltzaindia, Bilbo, 411-420.
- Lakarra, Joseba Andoni (1985): «Literatur gipuzkerarantz. Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)», *ASJU*, 19(1), 235-281.
- , (2008): «Temas para un prólogo: Forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco», *Oihenart*, 23, 277-347.
- , (2019): «Bon/bor-/bol- familiaren berreraiketakako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez», in Irantzu Epelde eta Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen Omenez*, UPV/EHU, Bilbo, 377-395.
- Lakarra, Joseba Andoni; Manterola, Julen eta Segurola, Iñaki (2019): *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mitxelena, Koldo (1954 [2011]): «Nota sobre algunos pasajes de los Refranes y Sentencias de 1596», in Joseba Andoni Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz

- (arg.), *Luis Michelena. Obras completas* [ASJUren gehigarriak 54], Gipuzkoako Foru Aldundia / EHU, Donostia / Gasteiz, XI, 131-139.
- Mounole, Céline (2015): «Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz», in Beatriz Fernández eta Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*, UPV/EHU, Bilbo, 473-490.
- Uribe-Etxebarria, Oxel (2008): «Euskerazko doktrinia Anzuelako berba moduan (1825)», *ASJU*, 42(2), 139-209. <<https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/download/5706/5386>>
- Urquijo, Julio (1910): «Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte a alguno de sus colaboradores (1) (Continuación)», *RIEV*, 4(2), 233-297.
- Zavala, Juan Mateo (1848): *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, Ignacio Ramon Baroja, Donostia.
- Zuazo, Koldo (2012): *Arabako euskara*, Elkar, Donostia.

ERANSKINAK

1. eranskina: adizkiak bere testuinguruan

- (1) *itaundu ñagon poridadean / beste donzella bateri* (Laz, A7:71)
- (2) *Egun ascotan nic eguin ñagon / modu ascotan erregua* (Laz, A21:5)
- (3) *çaguita çorroz bat ifini ñagon / berar gaxtoaz ganchitua* (Laz, A21:17)
- (4) *bere cençuna ifini ñagon / promesa ascoz pobladu[a]* (Laz, A21:25)
- (5) *Erançun ñagon: “Ni noçun guero (...)* (Laz, B21:97)
- (6) *inori emun bajagot bere, / ez nago damu jaquinic* (Laz, A23:59)
- (7) *Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciatic* (Laz, A23:1)
- (8) *Gabetan barriz ez jagot joco / laztanai biguelea* (Laz, A24:17)
- (9) *ez gueiigo ez jagot joco / contereagaz atea* (Laz, A24:23)
- (10) *Juramentu eguiten jagot / obian daçan amari* (Laz, A27a:39)
- (11) *Semeric badeu esaten jago: / “Aita, eguidac jaquea”* (Laz, A24:99)
- (12) *p. cegati da glorificadorea. r. cerren vere gracian ilten diranai emoten jaguen gloria* (AmilD, 3)
- (13) *p. guztia¹⁶ aurpegui modubat ecusico jagoe. r. ez jauna viciaq aleguerea ta ilac aserrea* (AmilD, 6)
- (14) *Orregatic erregutzen jaot Santa Maria beti Virgiñari (...)* (AnzD, 8r)
- (15) *Bai, Jauna, Escritura sagraduan daguana eta Jaungoicuac Eliziari rebeladu jaon guztian* (AnzD, 19r)
- (16) *Cer oracino esaten jaozu principalmente Maria Santisimari?* (AnzD, 21v)
- (17) *Eguin biar jaegu oracino Santuay ere?* (AnzD, 22v)
- (18) *Ceiñec honratzen ditu gurasuac? —Obedecitzen jaenac, socorritzen dituanac eta reverenciatzen dituanac* (AnzD, 24r)
- (19) *bederatzigarrena, bularreco golpiagatic, escatzen jagula barcacino Jaungoico gure Jaunari* (AnzD, 27v)
- (20) *Ba[y,] Jauna, edoceyn confesorec billatuco jao erremediua, Erromara juan bague* (AnzD, 32v)

16. Arejitak eta Alberdik (1985: 24) <guztai> transkribatu zuten *lectio facillior* eginez, ziurrenik *jagoe* adizkia *izan*-en datibodun formatzat edukitzeak hartaraturik (cf. Zuazo, 2012: 126; Aldai, 2013: 22; ziurrenik egungo formetan gertatu da berranalisi edo kutsatze hori). Hala ere, faksimilean nahiko argi ikusten da bestela ere testuinguruak eskatzen duen ergatiboko <c>-a (ikus 3. eranskina).

2. eranskina: Lazarragaren eskuizkribuko zenbait hitzen grafia-konparaketa¹⁷

	VjnV	VnV	<n>	VjñV	VñV	<ñ>	Guztira
<i>zein</i>	7	20	27	1	27	28	55
<i>baino</i>	3	-	3	1	8	9	12
<i>oin</i>	1	1	2	1	6	7	9
<i>gain</i>	1	2	3	-	5	5	8
<i>-rainol/-gaino</i>	-	-	-	-	1/3	4	4
<i>muin</i>	-	1	1	1	1	2	3
<i>baina</i>	1	1	2	-	1	1	3
<i>soin</i>	1	-	1	-	1	1	2
<i>suin</i>	-	-	-	1	-	1	1
<i>ino(r/n/...)</i>		19	19		7	7	26
<i>nagon</i> 'nion'		1	1		4	4	5
<i>nin(d)oala</i> ¹⁸		-	-		1	1	1
Guztira	14	45	59	5	65	70	129


17. Zutabeen izenburuen ulerbidea (*zein* hitza adibidetzat): VjnV = *zeina*, VnV = *zena*, VjñV = *zeiña*, VñV = *zeña*; <n> edo <ñ> = hizki hori daukaten adibide guztien batura.

Taula honetan kontsonante sudurkari sabaikaria zuketzen euskal ondare zaharreko hitzak baino ez dira agertzen. Kanpoan utzi dira, beraz, bokal sudurkariak eta *cañadaetan*, *engañadu* edo *mañea* bezalako mailegu argiak (zeinak diakritikorik gabe ere ageri diren eskuizkribuan zehar; esaterako, *enganadu* bera), bai eta codako kontsonantearen ordezkio diakritikoa daramaten adibide apurrak ere (adibidez, *esã/go* 'esango', *çecē* 'zezen' eta *jāçita* 'jantzita'; badira ikurrik gabeak ere, diakritikoen erabilera defektiboaren erakusgarri, hala nola *ay[n]bat*, *biurqueta[n]*, *arçaiten[n]*, etab.).


18. Lazarragak niñoala '*nindoala*' dakar behin, baina nioean '*nindoan*' beste batean; txandaketa horrek bokal sudurkarien presentzia erakusten bide du (aldiz, cf. Sasiola debarraren *banijoean* 'banindoan').

3. eranskina: irudiak


i) <ñagon> adizkia Lazarragaren eskuizkribuan




1171v or.




1193v or.



1193v or.




1193v or.



1200r or.

ii) <guztiac> hitza Amilletaren eskuizkribuan (Arejita eta Alberdi, 1985: 32)



4. eranskina: lekukotasun modernoak (Irizar, 1991, 1992; Euskaltzaindia, 2014 [EHHA])¹⁹

i) Oñati

Orainaldia	3sg DAT
1sg ERG	<i>xa(o)t</i>
2sg (hi) ERG	<i>xa(o)k, xa(o)n</i>
2sg (zu) ERG	<i>xatzu</i>
3sg ERG	<i>xao</i>
1pl ERG	<i>xau(gu)</i>
2pl ERG	<i>xatzue</i>
3pl ERG	<i>xaue</i>

ii) Bergara-Antzuola

Orainaldia	3sg DAT
1sg ERG	<i>jat</i>
-	-
2sg (zu) ERG	<i>jatzu</i>
3sg ERG	<i>ja(o)</i>
1pl ERG	<i>jau</i>
2pl ERG	<i>jatzue</i>
3pl ERG	<i>jaue</i>

19. Erañak Bergarako datibo pluraleko adizki batzuk ere badakartza: *jet* 'diet', *jetzu* 'diezu', *jeu* 'diegu'. Horiez gain, iraganeko zenbait forma ere aipatzen ditu (*jaun* 'genion', *jatzun* 'zenion', *jetzuen* 'zenieten'), baina, berak dioen bezala, analogiaz sortuak dirudite (Eraña, 2020: 65). Halaber, analogiari zor bide zaio bigarren pertsonetako afrikatua (-*tzu*, -*tzue*), Nor-Nori formen antzekotasunak hartaraturik, ziurrenik.

